

ENPRESA IDEIA SORTZEN



BEHARRAK DEKETATU:

Gaur egun inoiz baino baliabide gehiago ditugu gure ingurunea hobetzeko, baina ez dirudi boterea duen inork gizartea hobetzeko interesa duenik. Hausnarketa sakona egin ondoren, hainbat arazo identifikatu genituen gizartean. Gizarteko arazo hauetako batzuk berdintasun falta, pobrezia, kutsadura, eta segurtasun falta errepidean dira. Arazo hauetatik guztietatik, eta urtean dauden auto istripuen estatistikak ikusita, azkenean arazo hau aldatzea erabaki dugu.

GURE EKARPENA DEFINITU:

Taldekideten abileziak, besteak beste, liderazgoa hartzea, egoera zailetan perseberantea izatea, ideia kreatiboak proposatzea eta bata bestearekin konplementatzea izango lirake. Gure interesei dagokionean, teknologia interesatzen zaigu, teknologia berriak sortzea eta dagoeneko ezagunak direnak hobetzea. Ingurunea zaintzea eta hobetzea ere interesgarria eta ezinbestekoa iruditzen zaigu. Azkeneko hau izan da azkenean gure helburua talde bezala, bizitzak salbatzeko eta bizitza hobetzeko ahalmena dugula iruditzen baitzaigu.

BRAINSTORMING-A:

Hasiera batean, gure taldean ez genuen enpresa ideia argirik, beraz, brainstorminga egitea ondo etorri zitzaigun. Brainstormingaren lehenengo fasean hainbat ideia bota genituen, burura lehenengo etortzen zitzaizkigunak. Ideia asko atera ziren, adibidez: betaurreko adimentsuak, denda txikietako janaria eskatu eta etxera eramateko aplikazio bat, galdutako objektuak aurkitzen laguntzeko aplikazio bat, auto enpresa bat, eta ordenagailu enpresa bat. Ideia interesgarriak dira denak, batzuk hasieran bururatu zitzaizkigun arazoekin zerikusirik ez badute ere. Bigarren fasean, ideia guzti horiek baloratu genituen, ideia askok gizartean aldaketa handirik egingo ez zutela pentsatu genuen, eta beraz, auto elektriko adimentsu eta ez-kutsakor enpresa eta betaurreko adimentsuak hautatu genituen ideia posible bezala, biak ideia interesgarriak eta berritzaileak direlako. Hirugarren eta azkeneko fasean auto enpresa bat sortzea erabaki genuen, iruditu zitzaigulako kutsadura eta istripuak konpondu ditzazkegun arazoak direla, eta beraz horrela gizartearen beharrei erantzungo geniekeela.

ENPRESA IDEIA:

Auto enpresa bat egitea erabaki genuenez, gure enpresak besteetatik bereizten dituen ezaugarriak eduki behar zituen, eta hau abiapuntu bezela hartuta hasi ginen ideia osatzen. Ezaugarri garrantzitsuena segurtasuna iruditu zitzaigun, eta honengatik autoei sentsoreak integratzea erabaki genuen, istripuak galarazteko asmoarekin. Adibidez, gure autoa ezingo da abiadura gehienetik pasa errepide bakoitzean. Gainera gure autoak elektrikoak izango direla erabaki genuen, sortzen duten kutsadura murriztea ezinbestekoa iruditzen baitzaigu, eta horretarako auto

elektrikoen erabilera zabaldu behar dela iruditzen zaigu. Energiaren erabilera garbiena egiteko, gure autoei eguzki plakak ipintzea ere bururatu zitzaigun, ahalik eta efizienteenak izateko. Segurtasunari garrantzi handia ematen diogunez, lapurreten aurkako sistemak ere izango ditu autoak, puskatzea oso zaila diren leihoak, adibidez, eta baita hatz markaren bidez irekitzen diren atear ere, askotan huts eginez gero automatikoki poliziari deitzen diona abisua emanaz.

Aplikazio bat ere sortzea bururatu zaigu, autoa zure poltsikotik edota ordenagailutik kontrolatzeko. Aplikazioaren bidez atear ireki daitezke, autoa lokalizatu, autoaren informazioa ikusi, hau da, bateria, kilometroak, etab. eta baita barruko argiak piztu, itzali, eta hauen kolorea aldatu.

Entretanimendua garrantzitsua iruditzen zaigunez ere, autoaren eserlekuen atzealdean pantaila taktikak ipiniko ditugu, bidaiak luzeetan ez aspertzeko. Gainera, haizetakoan pantaila transparente bat inpiniko dugu, abiadura, gps-a eta bestelako informazio garrantzitsua bertan erakusteko, beste aldeetara begiratzeko beharrik gabe. Horrela momentu orotan begiak errepidean edukiko dituzte gidariak. Hala ere, autoa geldirik dagoenean (arrankatu gabe), pantaila normala bezala erabili daiteke, mezuak, pelikulak eta abar ikusteko. Baita internetetik nabigatzeko ere, gure autoak wi-fia izango baitu. Ahalik eta erosoan bidaiatzeko gaur egungo auto guztiek dituzten abantailak ere izango dituzte, hau da, berogailua, aire girotua, altabozak...

Gure ustez produktu honek merkatuko auto elektrikoen beharra asetuko du eskaintza handituz, eta hasieran aipatutako arazoak konpotzen lagunduko du, kutsadura gutxituz eta garraioa seguruagoa eginez. Horrela gizartea eta gure ingurua hobetuko ditugu.